

Formatu handiko klarionak

Rafael Ruiz Balerdi

2022ko irailaren 22tik abenduaren 2ra

CarrerasMugica

*Nire burua ezagutzeko egiten dut pintaketa lana, beldurraz jabetzeko eta, behar bada, beldurra gainditzeko.*¹

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztu nahi du galerian, irailaren 22tik aurrera, *Tizas gran formato*, Rafael Ruiz Balerdiren (Donostia, 1934-Altea, Alacant, 1992) hirugarren erakusketa.

Bertan, formatu handiko hamaika lan izango dira ikusgai. Okre koloreko zatar-paper gainean eginda daude pastel eta argizariekin, baina “klariona” izenez ezagutzen dira. Ruiz Balerdi teknika hori erabiltzen hasi zen *Paisaje imaginario* (1978) lanean, Txinara bidaia bat egin ondoren. 1980tik 1985era, “*sormenezko irakite-garaian*”, teknika hori erabili zuen gehienbat, eta erakusketa ugari egin zituen Espainian, Frantzia eta Alemanian.

Balerdi jaunak ez zuen margotzen lehendik izatasuna zuen zerbait. Formak eta koloreak antolatzen zituen. Trantze-egoeran bailegoen mugitzen zen bere eskua eta kolorezko lineak eta mantxak egiten zituen. Lantzen zituenak ez ziren “majina erreferentzialak”, baina, emaitza kontutan hartuz gero, deskripzio naturalista batek dituen elementuak topa zitezkeen, hau da, apartentzien elaborazio plastikoan ikusi ohi direnak alegia: distantziak, sakonguneak, dentsitateak, klaruguneak, islatzeko gaitasuna duten eremuak, zona opakoak. Psiko-grama informalista eta mundu sentsorialeko apartentzekiko zaletasunaren arteko topaguneak.

Aldi berean bi gauza lortzeko bide eman zioten pastekek eta argizariak: Kolorean dizdirakortasuna eta arintasun harrigarritz eskua higitzea. Aurkikuntzaren alde bat (ez hain garrantzi handikoa) zen papera, merkea, arina eta erabilgarria bazen ere. Balerdi jaunaren modus operandi deskribatzeko, Calvo Serraller jaunak erabili zuen imajina, esanguratsua izan zen: Sismografoaren antzera egiten zuela lan alegia. Honek, eskua etenik Gabe mugitzearen deskribapena eskaintzen digu, lan egiteko modu askea eta miloimetroko metikulosotasunduna edo trazu lodikoa, soportearen etenik gabeko higikortasuna, paper garbia mila aldiz ordezkatzeko, berriro ekin ahal izatea behin eta berriro edo jarraitu ahal izatea. Izan ere, koadro honek aditzera ematen duen sentsaziorik bortitzenetarikoa, kontinuotasuna da.

*[...] haren obraren garbitasunari eta bertan funtzio esanguratsu eta patetikorik ez izateari buruzko erreferentziek ez dute pentsarazi behar adimen aldetik lotutasunik gabe ari dela, ekintza fisiko soil bat edo automatismo adimengabe bat dela. Aitzitik, pasteletan oso nabarmena da, lehenbiziko itxura kaotikoaren azpitik, pintorearen ahalmen mentala, ordenatzeko zuen gaitasun zorrotza, espazioa menderatzen zuela [...].*²

Rafael Ruiz Balerdiren lana hainbat bilduma eta museotan dago ikusgai, hala nola Bilboko Arte Ederren Museoan, San Telmo Museoan eta MNCARSen.

¹ *Diario Vasco*, 1982ko otsailaren 12a

² Javier Viar: *Balerdi. La experiencia infinita*, Rekalde erakusketa-aretoa (Bilbo) eta Koldo Mitxelena (Donostia-San Sebastián) (ed.)



Ikuspegi orokorra



Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 273,5 cm.





Composición
Pastela paper gainean
168,5 x 278,5 cm.



Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 278,5 cm.



Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 260,5 cm.



Ikuspegi orokorra



Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 250 cm.



Ikuspegi orokorra



Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 266,5 cm.







Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 282,5 cm.





Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 255 cm.



Ikuspegi orokorra





Composición. Pastela paper gainean. 168,5 x 273,5 cm.





Ikuspegi orokorra

Composición
Pastela paper gainean
161 x 110 cm.






Composición. Pastela paper gainean. 161 x 110 cm.

Composición
Pastela paper gainean
161 x 110 cm.





Composición. Pastela paper gainean. 161 x 110 cm.



Composición
Pastela paper gainean
161 x 110 cm.



CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725